

Igor Barreno Fernandezek bere Tesia irakurri du

2016/01/27

Urtarrilaren 21ean, goizeko 11:30etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Igor Barreno Fernandez Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Garaia Berrikuntza Guneko Auditorioan. Tesiaren izenburua: *Desarrollo de una metodología de cálculo para el diseño de una bomba de calor Stirling oscilante* eta tesi zuzendariak: Idoia Urrutibeaskoa eta German Castillo. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- **Mahaiburua:** Juan Antonio Auñón Hidalgo (Universidad de Málaga) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Francisco Javier Aranceta Aguirre (MCC-Mondragon Componentes) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Jon Ander Esnaola Ramos (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Unai Fernández Gámiz (Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea) Dk. Jn.
- **Idazkaría:** Manex Martínez Agirre (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Stirling bero ponpa oszilatzaile batek, bero ponpa tradizionalak ez bezala, ekidin egiten du ingurumena kaltetzen duten gasak erabiltzea eta efizientzia handia eskaintzen du.

Ikerketa lan honetan diseinurako metodologia bat garatu da, zeinak Stirling bero ponpa oszilatzaile baten ezaugarriak hartzen dituen kontuan. Korrelazioak ere garatu dira numerikoki, Stirling teknologian erabiltzen diren bero trukagailuetan presioaren jaitsiera eta beroaren transferentzia karakterizatzeko.

